

GAZTARO BILDUMA

OTSOAREN BEGIA



Daniel Pennac

GAZTARO BILDUMA

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso dau.



OTSOAREN BEGIA



- © Ibaizabal argitaletxea, 1999
48290 Euba - Bizkaia
- © Editorial Luis Vives, 1999
- © Éditions Nathan, 1982
- © Daniel Pennac
- © Jacques Ferrandez


Itzultzailea: *Sabin Barruetabeña*
Koordinatzaileak: *Nekane Umerez*
Eukene Herrera
Maketatzailea: *Aitziber Ibaibarriaga*
Laguntzailea: *Edurne Otaegi*
Jatorrizko titulua: *L'Oeil du Loup (El ojo del lobo)*

Tailer grafikoak: ZURE, S.A.
ISBN: 84-8325-233-3
Legezko gordailua: BI-811-99

Egilea: Daniel Pennac
Marrazkilaria: Jacques Ferrandez
Itzultzailea: Sabin Barruetabeña

*Otso Urdin, Afrika,
biak jarri dira
alkarren aurrez aurre,
alkarri begira;
begian zehar sartuz
anima erdira,
haxe histori bien
miresmen dirdira,
ez dabe ezer gorde
begitik begira.*

1. Topo egitea



I

Mutikoa zutunik dago otsoaren kaiola aurrean. Ez da mugitzen. Otsoa batera eta bestera dabil esparruaren luze-zabalean, gelditu ere egin barik.

“Hau mutiko aspergarria...!”

Hori pentsatu dau otsoak. Mutikoak ia ordu bi daroaz hesiaren aurrean zutunik, haritz ihartu bat bezain geldi, otsoaren joan-etorriei begira.

“Zer gura ete dau?”

Hori da otsoak bere buruari egin deutson itauna. Mutikoak kezkatu egiten dau. Ez deutso ardura (otsoa ez da ezeren bildur), baina jakin-mina eragiten deutso.

“Zer gura ete dau?”

Beste mutikoak arineketan dabilz, jauzika, garrasika, negarrez; otsoari mihina atera eta gero amen gonetan ezkututzen dabez euren buruak. Jarraian pailazokeriak egitera joaten dira gorilearen kaiola aurrera, eta buztanari eraginez



dabilen lehoiarenera, haren musturretan orroaka hasiera. Mutiko hau ez. Zutunik dago, geldi, isilik. Begiak dira mugitzen diran bakarrak, otsoaren sare barruko joan-etorriei segika.

“Ez dau inoiz otsorik ikusi, ala?”


Otsoak, bi aldirik behin bakarrik ikusten dau mutikoa.


Izan ere, otsoak begi bakarra dau. Bestea gizonen aurka izandako borrokan galdu eban, harra-patu eben egunean, dirala hamar urte. Beraz, joanean (horri “joana” esaterik badago), otsoak zoo osoa ikusten dau, kaiolak, pailazoarena egiten diharduen umeak eta, horreen artean, geldi geratu dan mutikoa. Itzuleran (honi “itzulerea” esaterik badago), otsoak bera bizi dan kaiolearen barrua ikusten dau: kaiola hutsa, joan dan astein hil zalako otsema; kaiola tristea, erdian harkaitz arre bat eta zuhaitz ihartu bat baino ez daukana. Gero otsoak biera emoten dau eta hor-txe dago barriz ere mutikoa, bere arnaseagaz aire hotzean lainotxo zuri bat irudikatuz.

“Nekatuko da!”, pentsatu dau otsoak, ibiltari itzi barik. Eta gaineratu dau:

“Berak baino eroan handiagoa dot nik.”

Eta gero azkenik: “Ni otsoa naz”.





II

Baina, biharamun goizean, otsoak itzartzean ikusi dauan lehenengoa mutikoa da, zutunik kaiolearen aurrean, bezperan egoan leku berean.

Ezustekoz ia jauzia egin dau.

“Ez éban, ba, gau osoa hemen igaroko?”

Bere burua kontrolatu eta barriz hasi da joan-etorrietan, ezer gertatuko ez balitz lez.

Otsoak ordu bete daroa ibilian; mutikoak ordu bete daroa begirik gaintetik kendu barik. Otsoaren ule urdinkak ikutu egiten dau sarea. Neguko narruaren azpian giharrak antzemoten jakoz. Otso urdina, sekula gelditzeko asmorik ez baleu lez dabil, Alaskako bere etxerantz joango balitz lez. “Alaskako otsoa.” Holan dino

burdinsarean eskegita dagoan plakatxoak. Ipar Handiaren mapea ere jarri dabe, eta bertan gorritz margoztutako zona bat: “Alaskako otsoa, Barren Lands...”.

Bere hankak ez dabe hotsik egiten lurra ikutzean. Kaiolan, alde batetik bestera doa. Erloju erraldoi baten pendulu isila dirudi. Mutikoaren begiak astiro mugitzen dira, abiada geldoan filmaturiko tenis partidu bat ikusten balebilz lez.

“Zer gura ete dau nigandik?”

Otsoak bekoskoa jarri dau. Ule tenteak makurtu eta muturraren aldera jausten jakoz. Zergatik ete jatoriko hainbeste itaun mutiko hau dala eta? Behin zin egin eutsan bere buruari ez zala sekula gizon-emakumeez arduratuko, ez dabelako kezkatzea merezi.

Hamar urtez lortu dau, behin ere ez deutse begirada bat ere eskeini, bat ere ez! Ez kaiola aurrean pailazokeriak egiten dabezan umeei, ez urrutitik okelea botaten deutson morroiari, ez domeketan bera pintatzera etorten diran artistei, ezta guraso tentel horreei ere, seme-alabei otsoa atzamarrez erakutsi eta oihuka esaten deutsielako: “Begiratu, hauxe da otsoa eta ondo portatzen ez bazara, ikusiko dozu zer egingo deutsun!”. Tira, ba horreei begirada bat bera ere ez.

“Gizakiak daukan alderik onenak ere ez dau ezer balio!”

Hori zan Sugar Baltzek, otsoaren amak, beti esaten eutsana. Joan zan astera arte, otsoak tarteka ibiltzari itzi egiten eutsan. Otsemea eta biak bisitarien aurrean jesartzen ziran. Bazirudian inork ez eutsela begiratzeko. Otso emeak eta berak zuzen begiratzeko eben aurrera eta, hareen begiradak zeharkatu egiten zinduzan, hor ez bazengoz lez; oso sentsazio desatsegina zan.


“Zeri begira ete dagoz?”

“Zer ete dabilz ikusten?”

Baina otsemea hil egin zan (grisa eta zuria zan, eper zurien antzekoa). Ordutik, otsoa ez da behin ere gelditu. Goiz eta arratsalde ibiltzen da eta, bere ondoan, lurtean, okelea usteldu egiten da. Kaiolarearen beste aldean, kandela bat bezain tente (kandelearen garra litzateke lurrin zurizko lainoa), mutikoa begira dauka.

“Hor konpon!”, pentsatu dau otsoak.

Eta mutikoarengan pentsatzeari itzi deutso.



III

Baina, hurrengo goizean, mutikoak hortxe jarraitzen dau. Eta hurrengoan. Eta baita ondorengo egunetan ere. Eta otsoak, gura barik, barriz ere mutikoarengan pentsatzen dau.

“Baina nor ete da hori?”

“Zer gura ete dau?”

“Ez ete dau beste zereginik?”

“Ez ete dau ikasi beharrik?”


“Ez ete da eskolara joaten?”

“Ez ete dau adiskiderik?”

“Ez ete dau gurasorik?”

“Ala, zer?”

Hainbeste diranez burura jatorkozan itaunak, geldotu egin dau ibilerea. Hankak astun baleuz lez. Oraindino ez dago nekaturik, baina gitxi falta jako.



“Harrigarria, benetan!”, pentsatu dau otsoak.

Tira, bihar zooa itxi egingo dabe. Hilero ixten dabe egun baten, animalien zainketarako eta kaiolen mantenimendurako. Egundorretan ez da ikuslerik izaten.

“Halako baten begien bistatik kenduko dot!”

Baina ez. Biharamunean ere, aurreko eguntan lez, mutikoa hor dago. Eta inoiz baino nabarmenago gainera, bera bakarrik dagoalako kaiolarean aurrean, jenderik bako zooan.

“Ez, ba!”, kexatu da otsoa.

Ba, bai!

Otsoa orain oso nekatuta sentitzen da. Mutikoaren begiradeak tona bat pisatzen dauala iruditzen jako.

“Ondo da”, pentsatu dau otsoak. “Ondo da! Zeuk gura izan dozu”.

Eta, bat-batean, gelditu eta jesarri egin da, oso artez, mutikoaren aurre-aurrean, eta bera ere begira-begira jarri jako. Baina bere begiradea ez da gorputza alderik alde zulotzen dauan horreetakoa, ez horixe! Egiazko begiradea da, begirada sarkorra!

Ederto. Orain aurrez aurre dagoz.

Eta luze doa.

Bisitari bat ere ez dago zoologikoan. Albaitariak ez dira oraindino heldu. Lehoiak ez dabe

oraindino euren gordelekuetatik urten. Txoriak lo jarraitzen dabe luma artean babestuta. Atsedean eguna da guztientzat. Tximinoak ere uko egin deusie zorakeriak egiteari. Adarretatik dingilizka dagoz saguzar lokartuen antzera.

Mutiko hori dago bakarrik.

Eta ule urdinkarako otsoa.

“Niri begiratzea gura dozu? Ederto! Neu ere begira jarriko naiatzu! Ea zer gertatzen dan.”

Baina zerbaitek arduratzen dau otsoa. Huskeria batek: berak begi bakarra dau eta mutikoak bi. Beraz, otsoak ez daki mutikoaren zein begitan ezarri behar dauan begiradea. Zalantzan dago: eskumakoari begiratu, ezkerrekoari... Mutikoaren begiak ez dira mugitzen. Otsoa urduri dago, ez da eroso sentitzen. Ezelan ere ez leuke burua bihurtuko, ezelan ere ez litzateke barriz ibiltzen hasiko. Baina bere begiak gero eta dardara handiagoa dau, eta begi galduaren orbaitetik malko batek urten deutso. Ez dago triste, ez horixe. Ezintasuna sentitzen dau, eta baita amorrua ere.

Orduan mutikoak gauza bitxia egin dau: begi bat itxi dau. Eta otsoa nasaitu egin da, konfiantza emon deutso mutikoak.

Hor dagoz orain, alkarri begietara begira, zoologiko huts eta isilean. Gura daben denpora guttia dabe eurentzat.



2. Otsoaren begia

I

Begi horia da, biribila, eta erdi-erdian begi nini baltz bat. Sekula kliskatzen ez dan begia. Mutikoak gauez isiotutako kandela bati begira dagoala emoten dau. Otsoaren begia da ikusten dauan bakarra. Zuhaitzak, kaiolea, dana desgertu da. Gauza bat geratzen da bakarrik: otsoaren begia. Gero eta handiagoa da, gero eta biribilagoa, ilargi gorrixka bat dirudi zero hutsean. Erdian begi nini gero eta baltzagoa dauan ilargi bat, irisaren hori ilunean kolore desbardinetao orbantxoak daukazana: hemen orban urdina (zerupeko ur izoztuaren kolorekoa), eta hor urre koloreko distira, pipita bat balitz lez.

Baina garrantzitsuena nini da, nini baltza.

“Beguratu egin gura zeunstan, ezta? Ba, begiratu eidazu orain!”


Hori emoten dau esaten jabilkola nini. Distira itzela dau. Sugarra dirudi.

“Horixe —pentsatu dau mutikoak—: sugar baltz bat!”

Eta jarraian:

“Ondo da, Sugar Baltz, begira naukazu, ez deutsut bildurrik”.

Mutikoak ez deutso begia gainetik kentzen. Ninia handiagotu egin da, begi osoa hartuz; egi-azko sutearen distirea dau. Eta dana baltz bihurtu danean, guztiz baltz, inoiz inork otsoaren begian ikusi ez dauana ikusi dau: ninia bizirik dago. Otseme baltz bat ikusten dau, uzkurtuta bere kumeen artean, eta marmarka dihardu mutikoari tinko begira. Ez da mugitzen, baina bere ule distiratsupean ezagun dau ekaitzaren erara eztanda egiteko zorian dagoala. Ezpanak jaso dauz letagin itzelen gainetik. Jauzi egitera doa. Halako mutiko txikia mokadu bakar baten iruntsiko dau.



“Ziur zagoz ez dozula bildurrik?”

Ziur. Mutikoa hor gelditu da. Ez dau begiradea alderatu. Denporea aurrera doa. Orduan, astiro-astiro, Sugar Baltzen muskuluak nasaitu egin dira. Eta ahopean marmarka jarraitu dau:

“Tira, ondo da, gura badozu, begiratu gura dozun arte, baina ez eidazu trabarik egin nire kumeei irakasten nabilen bitartean, ulertzen?”

Eta, mutikoaz gehiago arduratu barik, bere inguruan etzunda dagozan zazpi otsokume ule-tsuaq begiradapean hartu dauz. Hareek geriza gorrixka osotzen deutsie Sugar Baltzi.

“Irisa da —pentsatu dau mutikoak— irisa niniaren inguruan...”


Egia, bost otsokumek iriseko kolore gorri berbera dabe. Seigarrenaren ulea urdinskea da, zeru oskarbipeko ur izoztuaren kolorekoa. Otso Urdin da!

Zazpigarrenak (eme txiki ulehoria) urrezko distirea emoten dau. Begiak txilotu egin behar dira hari begiratzeko. Bere nebak Urrezko Pipita deitzen deutsie.

Inguru guztia, muinoak mugatzen daben hodei-ertzeraino, estaldu dau edurrak, Alaskako edur isilak, han urrunean, Kanadako Ipar Handian.

Barriri entzun da Sugar Baltzen ahotsa, irmo samar isiltasun zuri horren erdian:

—Ene seme-alabok, gaur Gizakiaz berba egingo deutsuet!



II

—Gizakiaz?

—Barriz?

—Barriz, ez!

—Beti dihardugu gizakien istorioak
kontatzen!

—Aspertu gara dagoaneko!

—Orain ez gara txikiak!

—Berba eiguzu edur-oreinez, erbi
zuriez edo ahateen ehizeaz...!

—Hori da, Sugar Baltz! Kontatu
eiguzuz ehiza istorioak!

—Bai, mesedez! Gu otsook ehiztariak gara, bai ala ez?

Baina Urrezko Pipitaren uluak nagusitu dira:

—Ez! Nik Gizakiaren istorio bat gura dot, egi-azkoa, bildur handia emoten dauan horretakoa! Ama, mesedez, kontatu eiguzu Gizakiaren istorio bat. Irrikaz nago!

Otso Urdin da isildu dan bakarra. Berez da berba gitxikoa. Oraindino gehiago, serioa eta apur bat tristea ere bada. Bere neba-arrebentzat aspergarria. Baina berba egiten dauanean —gitxitan bada ere— danak adi egoten dira, orbainez betetako otso zahar bat beste jakintsua dalako.

Tira, baina oraingoz bost otsokume ulegorriak borrokan hasi dira: batak besteari buztanetik heldu, alkarren bizkarrera salto, egin hanketan haginka eta zoratu beharrean dabilz, norik bere buztana harrapatu gurean. A ze iskanbilea! Urrezko Pipitak zirikatu egiten dauz, hareen uluei uluka eta igel zoro baten antzera saltoka. Edur zipriztinak zidar distirak dirudie.

Sugar Baltzek itzi egiten deutse jolasten.

—Ondo pasatu daiela...! Izango dabe astia otsoen benetako bizitzea zelakoa dan jakiteko.

Hori dinoan bitartean Otso Urdini begiratu deutso, bere seme-alabetan sekula jolasten ez dauan bakarrari. “Bere aitaren bardin-bardina da!”

Harro dago, baina aldi berean goibel, Otso Handi, aita, hil egin zalako.

“Serioegia da —pentsatu dau Sugar Baltzek.”

“Beti honetaz edo haretaz arduratuta...”


“Otsoegia da...”

“Entzun eizue!”

Otso Urdin jesarrita dago, harri baten moldera geldi, aurreko hankak atezuan eta belarriak tente.

—Entzun eizue!

Orduantxe amaitu da iskanbilea. Edur zipriztinak otsokumeen gainean pausatu dira. Hasieran ez da ezer entzun. Ulegorriok euren belarriak guztiz erne jarririk ere, ez dabe haizearen bat-bateko aienea besterik entzuten, eta miatzkada izoztu baten antzekoa egin jake.



Gero, bat-batean, haizearen ondoren otsoaren ulua entzun da, hainbat gauza esaten dauzan ulu luze eta modulatu.

—Lehengusu Gris da! —xuxurlatu dau ulegorrietako batek.

—Zer dino?

Sugar Baltzak begirada labur bat luzatu deustso Otso Urdini. Eurak biak badakie zer dinoan. Lehengusu Gris muino gailurrean dago zelatan, ibarra zaintzen.

Gizakia!

Ehiztari taldea...

Otsoen bila datoz.

Aurreko aldikoak eurak dira.

—Amaitu dira gaurkoz jolasak! Goazen hemendik!

III

—**B**eraz, horretan emon zenduan zure haurtzaroa, Otso Urdin, ehiztariengandik ihes egiten?

—Bai, horretan.

Muinoz inguratutako ibar baketsu baten geratzen ziran; Lehengusu Grisen ustez zeharka ezinak ziran muino hareek. Bertan aste pare bat edo igaro eta barriz ihes egin behar. Ehiztariak ez ziran sekula nekatzen. Ilargialdi bi baziran talde bera etenbaga atzetik ebela. Otso Handi, aita, ordurako hila eben. Ez kostabarik, ostera: borroka gogorra izan zan baina, azkenean, lortu egin eben.

Ihesi joiazan. Bata bestearen atzetik. Sugar Baltz joian lehenengo, ondoren Otso Urdin, gero Urrezko Pipita eta ulegorriak. Lehengusu Urdin azken joian, buztanaz lorratzak ezabatuz.

Behin ere ez eben arrastorik izten. Taldea guztiz desagertzen zan, beti iparralderantz. Gero eta hotz handiagoa egiten eban. Edurra izotz bihurtzen zan eta harkaitzak gero eta zorrotzagoak. Halan ere, gizakiak beti aurkitzen ebezan.

Beti. Ezerk ezin ebazan gelditu.

Gizakiak...

Gizakia...

Gauean, azeriren baten ezkutalekuan babes-ten ziran. (Azeriei ez jake ardura euren ezkutalekuak otsoei iztea, horren truke janari apurren bat emon ezkerro. Ez dabe gogoko ehizatzea, alferregiak diralako horretarako.) Lehengusu Gris kanpoan gelditzen zan zelatan, harkaitz baten gainean jesarrita, ibar osoa begiradapean ebala. Otso Urdin ezkutalekuaren atakan etzun egiten zan; bitartean Sugar Baltzek, haitzuloaren barrenean, ipuinak kontatzen ebazan bere seme-alabei lo eragiteko. Beti ziran gizakien ipuinak, jakina, eta, jada gaua zanez, jolaserako nekatuegiak egozanez, bildurra sentitzea gogoko ebenez eta Sugar Baltz eurak zaintzeko egoanez, Urrezko Pipita eta ulegorriak entzuten jarten ziran.

Bazan behin...

Beti zan ipuin bera, otsokume baldarra eta haren amama zaharrarena.

Bazan behin otsokume baldar bat. Hain baldarra zanez, ez eban bere bizitzan ezer ehi-zatzea lortu. Edur-oreinik zaharrenak ere bizko-regiak ziran berarentzat, basasaguak erpeetatik ihes egiten eutsien, ahateak hegaz egiten eben ihes bere musturretan... Ez eban ezer harrapatu sekula, ezta bere buztana ere! Baldarregia zan horretarako.

Ederto! Kontua zan, zeozertarako balio behar ebala, ezta? Zorionez, baeban amama bat, zahar-zaharra. Hain zaharra zanez, harek ere ezin eban ezer harrapatu. Bere begi handi eta goibelakaz gazteak lasterka zelan egiten eben begira egoten zan. Harrapakinen bat hurre-ratzen jakonean, ez zan jada ikaratzen. Danak sentitzen eben erruki apur bat haren ezintasuna zala eta. Ehizera joaten ziranean ezkutalekuan izten eben. Zuloa apur bat garbitzen eban, astiro-astiro, eta ondoren bere burua apaintzen eban, zidar koloreko ule zoragarria eukan eta. Hori zan gaztetatik gordeten eban gauza bakarra. Ez zan sekula ule ederragoko otsorik izan. Bere burua apaindu eta gero —ordu bi inguru emoten ebazan horretan—, haitzuloaren atakan etzuten zan amama, musturra hanka artean sartuta, Baldar noiz itzuliko zain. Hau zan Baldarren egitekoa; amamari jaten emotea. Lehenengo edur-oreina hiltzen ebenean, aide!, izterra amamari eroaten eutsien.

—Ez da astunegia zuretzat, Baldar?

—Bai zera!

—Ba, segi, eta ez denporarik galdu bidean!

—Eta jausi barik!

—Eta kontuz Gizakiakaz!

Baldarrek entzun ere ez ebazan egiten gomen-
dio horreek: ohituta egoan.

Harik eta egun baten...

—Harik eta egun baten, zer? —itauntzen
eben ulegorriak begiak zabal-zabalik.

—Zer jazo zan? Zer gertatu zan? —itauntzen
eban Urrezko Pipitak mihina aterata.

—Harik eta egun baten Gizakia ezkutalekura
Baldarren aurretik heldu zan arte —erantzuten
eban Sugar Baltzak marmar itzelean.

—Zer jazo zan?

—Esan, zer jazo zan? Kontatu eiguzu, kontatu!

—Orduan Gizakiak amama hil egin eban,
narrua ostu eutsan berokia egiteko, belarriak
kapelea egiteko, eta musturragaz mozorroa egin
eban.

—Eta zer gehiago?

—Zer gehiago? Lotarako ordua dala; bihar
esango deusuet zelan amaitzen dan.

Otsokumeak protesta egiten eben, jakina,
baina Sugar Baltzek ez eban amore emoten.

Apurka-apurka loaren zurrumurrua nagusitzen
zan haitzuloan.

Une horretan itaun bat egiten eutsan Otso
Urdinek, beti itaun bera:

—Sugar Baltz, egia da zure ipuina?

Sugar Baltz pentsatzen geratzen zan apur
baten, eta beti emoten eutsan erantzun bitxi bera:

—Kontrakoa baino gehiago bai, behintzat.





IV

Eta halan, urtaroak aurrera joiazan, otsoak hazi eta hazi ebilzan, benetako ehiztari bihurtuz joiazan, eta oraindino gizakirik ikusi barik, hurretik ez behintzat. Baina entzun, entzun ebezan; adibidez, Otso Handi euren aurka borrokatu zanean. Egun horretan Otso Handiren uluak entzun ebezan; gero gizonaren garrasi larria, abereak ipurdian haginka egin ondoren, borrokarako oihuak, aginte deiadararak, geroago trumoi hotsaren antzeko zaratea eta gehiago ezer ez. Otso Handi ez zan itzuli.

Eta barriz ere ihes egin eben.

Inoiz urrunera ikusi ebezan gizaki batzuk. Taldeak ibarra itzi eta berehala finkatzen ziran gizakiak han; orduan ibarra ketan jarten zan, lapikoa lez.

—Edurra zikintzen dabe —marmar egiten eban Sugar Baltzek.

Muinorik garaienaren gailurretik begiraten ebezan. Hanka biren gainean ibiltzen ikusten ebezan.

Baina, zer itxura ete eben gertutik?

—Lehengusu Gris, zuk ikusi dozuz gertutik?

—Bai, ikusi dodaz batzuk.

Lehengusu Gris ez zan batere barritsua.

—Zeren antza dabe?

—Gizakiak? Hanka bi eta eskopeta bat.

Ezin jakon gehiagorik atera.

Sugar Baltzek istorioak kontatzen jarraitzen eban, baina, handiak ziranez, dagoaneko ez eutsiezan sinesten.

—Gizakiak danetik jaten dabe: bedarra jaten dabe edur-oreinen erara, oreinak berak ere jaten dabez eta, ahora eroateko besterik ez badabe, otsoak ere jaten dabez!

Edo bestela:

—Gizakiak narru bi dabez: lehenengoak ez dau ulerik, bigarrena geurea bera da.

Eta baita ere:

—Gizakia? Gizakia bildumagilea da. (Inork ez eban ulertzen esaldi honen esanahia.)

Egun baten, atsedena hartzen egozala —danak oso nekatuta egozan—, baten batek itaundu eban:

—Baina zergaitik jabilku atzetik beti talde bera?

Lehengusu Grisek bere hanka minberatuak miazkatzen ziharduan.

—Entzun dabe urre koloreko narrua dauan otseme txiki bat badala...

Ez eban esaldia amaitu: Sugar Baltzek hasarre begiratu eutsan.

Beranduegi zan; ulegorri guztiak Urrezko Pipitari begiraten eutsien eta Urrezko Pipitak, belarriak erne, danei.

—Zelan? Nire bila dabilz?

Une horretanxe agertu zan eguzkia laino artetik. Izpi bat Pipitaren gainean kokatu zan eta danak aldendu eben begiradea distireagaitik. Urrezko otsemea emoten eban benetan, muttur puntan orban baltz bat ebal. Hainbeste urreren

artean orbana hain baltza ikusten zanez, begiak apur bat okerrazoten eutsazan.

“Maitagarria —pentsatu eban Sugar Baltzek—, maitagarria da nire alabea...” Eta berehala esan eban: “Baina bera baino buruarinagorik ez da”. Gero, hasperen sakona bota eta bere kautan pentsatu eban:

“Bene-benetan, Otso Handi, zergaitik emon ete deustazu sekula izan dan otsemerik ederrena? Ez jatzu iruditzen badogula nahikoa arazo?”



V

—Zelan? Nire bila dabilz?

Urrezko Pipitak doinu bitxian esan eban eta horretaz berehala ohartu zan Otso Urdin.

—Zelan, “nire bila dabilzala”?

Harroputz halakoa! Eta arduratzekoa zan...

Otso Urdinek ez ekian zer pentsatu bere arrebeaz. Jakina, otsemetan ederrena zan. Ikustekoa, gainera, ehizerako eban trebetasuna! Menderaezina zan! Nahiz ulegorriak ehiztari txarrak izan ez, Pipita trebeena zan. Sugar Baltzek baino ikusmen biziagoa, Lehengusu Grisek baino entzumen zorrotzagoa, eta “nik baino usaimen hobea”, onartu beharra eban Otso Urdinek. Bat-batean, gelditu egiten zan, airea usaindu, eta esaten eban:

—Hortxe! Satitsu bat!

—Non, non?

—Han!

Eta leku zehatza seinalatzen eban, hirurehun metro ingurura edo. Bizkarralde gorriko satitsu multzoa topatzen eben, eperrak adina lodiak danak ere. Ulegorriak ahozabalik geratzen ziran.

—Zelan antzemon deutsezu?

Eta harek erantzun:

—Usaimenari esker!

Bardin gertatzen zan udan, ahateak ehizatzen ebezanean. Ulegorriak uger joaten ziran isil-isilik harrapakinengana. Uretan euren musturrak baino ez ziran ikusten, ez eben olatu izpirik egiten. Baina, hamarretik bederatzitan ahateak hegaz egiten eben ulegorrien musturren aurrean. Urrezko Pipita ibai ertzean geratzen zan, bedar heldu artean katua lez ezkutaturik, itxaroten. Ahateei gatx egiten jaken hegaz gorantz egitea, ur arrasean abiatzen ziran, beraz, horreetako bat —beti gizenena— Pipitaren gainetik igaroten zanean, zast! jauzi bat eta graska!

—Zelan lortu dozu?

—Ikusmenari esker!

Edur-oreinen migrazio garaian, taldea ibarrean zehar luzatzean, otsoak muinorik garaienera igoten eben eta Urrezko Pipitak esaten eban:

—Seigarrena eskumatik, harkaitz handitik hasita: gaixo dago!

(Otsoen legea da edur-orein gaixoak besterik ez jatea.)

—Gaixo? Zelan jakin daikezu hain ziur?

—Entzumenari esker!

Eta gaineratzen eban:

—Entzun: ezin dau arnasarik hartu!

Edur erbiak ere harrapatzen ebazan. Otso batek sekula egiterik izan ez dauana.

—Hanka arinei esker!

Baina, balentria honeen ondoan, gauzarik errezenetan huts egiten eban. Adibidez: arnasa barik gelditu zan edur-orein zahar baten atzetik joan eta, bat-batean, hegaz abiatzen zan eper baten ondoren joaten jakozan begiak.

Gora begiratzen eban, estropozu egin eta taldeko besteak lurrean jausita topatzen eben, barrez lehertzen, txiki-txikia zanean lez.

—Barre gehiegi egiten dozu —aurpegiratzen eutsan Otso Urdinek—. Hori ez da serioa.

—Zu, ostera, serioegia zara; ez dozu grazia-rik.

Otso Urdini grazia-rik egiten ez eutsana halako erantzuna izaten zan.

—Zergaitik hainbeste barre, Urrezko Pipita?

Orduan barre egiteari itzi, begiak begietan,
holan erantzuten eutsan:

—Aspertu egiten nazalako.

Segidan argitzen eban:

—Sekula ere ez da ezer gertatzen leku mada-
rikatu honetan. Sekula ere ez!

Eta barrero errepikatzen eban:

—Aspertu egiten naz.

VI

Aspertzearen aspertzeaz, Urrezko Pipitak egun baten zeozer barria ikusi gura izan eban. Gizakiak ikusi gura ebazan, hurretik ikusi ere. Gau baten izan zan. Gizakiak otsoen atzetik jarraitzen eben. Beti zan ehiztari talde bera. Babestoki bedartsu baten kanpatzen eben, ezkutalekutik hiru bat orduko bidean. Urrezko Pipitak haren suen usainei erreparatu eutsen eta egur txinparta hotsa ere entzun eikean.

—Banoa! —pentsatu eban.


—Egunsentirako hemen izango naz.

—Azkenean jakingo dot zeren antza daben.

—Holan zer kontatu izango dot eta gitxiago aspertuko gara.

—Gainera, ez dabilz ba nire bila?

Bere ustez arrazoi sendoak ziran horreek.



Eta joan egin zan.

Otso Urdin itzartu zanerako (aurrentipen batengaitik), ordubete bazan Pipita joana zala. Berehala igarri eutsan. Lehengusu Grisen zainketeari ihes egitea lortu (baekian hori egiten ere!), eta gizakiak egozan aldera joana zan.

Harrapatu egin behar dot!

Otso Urdinek ezin izan eban harrapatu.

Ehiztarien kanpamendura heldu zanean, gizakiak sugarren argitara ikusi ebazan. Pozez jauzika ebilzan, soka sendoz itxi eta garabi-besotik zintzilikatutako sare baten inguruan. Sare barruan Pipita egoan, aireari haginka. Haren narritik urteten eben urrezko distira txikiak nabarmenagoak ziran gauean. Txakur zoratuak jauzika ebilzan sarepean. Hareen matrailazurrak alkar jotean egiten eben hotsa entzun eikean. Gizakiak ere oihuka eta dantzan ebilzan, otso narruz jantzita. “Sugar Baltzek arrazoa dau”, pentsatu eban Otso Urdinek. Eta berehala: “Sokea mozten badot, sarea txakurren gainera jausi eta zabaldu egingo da. Pipita euren aldean bizkorra da eta ihes egitea lortuko dau!”

Jauzia suaren gainetik egin behar eban, eta otsoak ez dabe hau batere atsegin; baina egin beharra eban, ez egoan bildurtzeko astirik. “Ustekabean harrapatzea, hori da urtenbide bakarra!”

Aire beroan salto egiten ziharduan, sugarren gainetik, gizakien gainetik! (Sua zala eta, danak aurpegi gorria ebela emoten eban). Sarearen gainetik joian jauzia!

Haginkada batez sokea ebagi eta oihu egin eban: “Zoaz ihesi, Pipita!”.

Gizakiak eta txakurrak gora begira jarraitzen eben.

Urrezko Pipita zalantzan lez geratu zan:

—Parkatu, Otso Urdin, parkatu...

Ondoren borroka latza hasi zan. Otso Urdinek txakur bi bota ebazan sugarretara.

—Zoaz! Zaindu eizu familia!

Orduan Otso Urdinek jauzi itzela egiten ikusi eban Urrezko Pipita, gero trumoi batzuen antzekoak entzun ebazan. Edur zipriztinak bere inguruan zabaltzen ziran, krater txikien erako zuloak sortuz.

Huts egin eben.



Iluntasunean ezkutatu zan.

Otso Urdinek ez eban alaitzeko astirik izan.

Dorrea lako gizon handi bat eukan aurrean, sutan egoan egur bat eskuan ebala. Otso Urdinek kolpe itzela jaso eban; bazirudian burua lehertu behar jakola. Gero ilundu egin eban, txinpartaz beteriko gaua zan, eta bera behin eta barriz jausiz joan zan, bueltaka lurrean.

VII

Holan gertatu zan. Itzartu zanean, begi bat bestetik ez eban zabaldu. Ez eben hil. Borrokearen ondoren otsoaren narrua hondatuegi egoan horregaz negoziarik egiteko. Horregaitik bialdu eben zoologikora. Egia esateko, bat baino gehiagotara, zeren hurrengo hamar urteetan bospasei ezagutu ebazan. Beti ziran bardinak: porlanezko zorua eta kalamiazko teilatuak, kaiola txikiak eta barrote sendoak, barruti itxi eta hesituak, urrunetik botaten daberen okelea, domeketako pintoreak, otsoari bildurrez begiratzen deustien neskato-mutikoak, beti bardin doazen egunak...

Beti egoan bakarrik, ezagutzen ez ebazan abereen artean, eta hareek ere bakarrik euren karioletan...



“Gizakia bildumagilea da.”

Orain ulertzen eban Sugar Baltzen esaerearen esanahia.

Bakarrik egoan. Bere kaiolan otseme bat sartu eben arte.

Hasieran, Otso Urdin ez zan gehiegi poztu. Jarria egoan bakardadera. Otsemeagaz baino gurago eban bere oroitzapenekaz egotea. Otsemeak eten barik ziharduan itaunka:

—Zelan dozu izena?

Berak ule arrea eban eta musturra ia zuria.

—Nondik zatoz?

Haren hanka puntak ere ia zuriak ziran.

—Aspaldi harrapatu zinduezan?

“Eper zuri baten antza dau”, pentsatzen eban Otso Urdinek.

—Beño —eten eban otsemeak—, zagoz isilik hori gura badozu, baina argi izan, zuk itaunik egiten badeustazu, nik erantzun egingo deusut.

“Pipitak erabiliko leukean amarrua”, pentsatu eban Otso Urdinek. Orduan itaundu eutsan:

—Eta zeu, nondik zatoz?

—Ipar Handitik.

—Ipar Handia oso handia da...!

—Ni Barren Lands ingurutik nator, Artikotik.

Otso Urdinek arnaseari eutsi eutsan: Barren Lands? Bera ere lur horretan harrapatu eben,

gizakiak halan deitzen eutsien. Bihotza taupaka sentitu eban.


—Barren Lands? Esaidazu, ezagutzen...?

—Danak ezagutzen dodaz han.

—Ezagutzen dozu urrezko narrudun otseme txiki bat?

—Pipita? Sugar Baltz eta Otso Handiren alabea? Bai horixe! Baina ez da otseme txikia; oso handia da. Otsorik handiena baino handiagoa! Gainera ez dau urre koloreko narrua...

—Ez dauala urrezko distirarik? Zer dinozu?



—Entzun dozuna. Nik ez dot sekula guzurrik esaten. Urrezko ulea eban, hori egia da, baina orain ez dauka holakoa; amatatu egin jakon.

—Amatatu egin jakola?

—Erabat. Gau baten bere neba bategaz joan zan, inork ez dau inoiz jakin nora, eta, goizean, bakarrik itzuli zan. Ilundua ekarren bere ulearen

kolorea. Orain ez dau distirarik egiten eguzkitan: kolore hori argia dau. Dolu jantzia ei da.

—Hori dinoe?

—Gauza asko esaten dabez berari buruz. Eta dana da egia, ezagutzen dot. Dinoenez, otsoen artean egundo ez da halako ehiztaririk ezagutu, eta egia da! Esaten danez, gizakiak ez dabe sekula ere lortuko ha eta beretarrak harrapatzea, eta egia da!

—Zer ete dakizu zuk? —itaundu eutsan Otso Urдинek harrotasun korapiloa paparrean sentituz.

Orduan Eperrek kontaketeari ekin eutsan. Udea zan. Hiru otso familia alkartu ziran ahate asko izaten ziran putzu baten inguruan. Horreen artean egozan Pipitaren eta Eperren familia. Danak isilik, zelatan. Bat-batean “fla, fla, fla!”, aire zirimola bat nabaritu eben gainean, hegada ezaguna: Helikopteroa! (Bai, orain helikopteroak erabilten dabez gu ehizatzeke!) Eta danba!, danba!, lehenengo suzko tiroak entzun ziran. Danak bildurrak hartuta, alde guztietara ihesi, helizeak sakabanatuko balebez lez. Eskerrak ehiztariak ez ekiela tiro egiten. Ehizea jolas moduan hartzen daben horreetakoak ziran. Helikopteroa jaisten hasi zan, gero eta gertuago egoan. Bedarra etzun egiten zan airearen eraginez. Helikopteroaren azpian egoan Pipita, baina ezin zan ikusi bedarraren kolore bera ebalako. Bat-batean, jauzi egin eta zas!, gidariari

hankatik oratu eutsan. Segituan, helikopteroa igoten hasi zan, zilipurdi bitxia egin eta braust! putzuaren erdira jausi zan.

Une horretan Eper arineketan joan zan Pipita-rengana eta itaundu eutsan: “Zelan lortu dozu? Esaidazu, Pipita, zelan?”.

Eta badakizu zer erantzun eutsan?

—Ikusmenari esker!


—Zelan dakizu?

—Azalduko deusut, jarraitu eizu.

—Ondo da: ba, hantxe egoan helikopteroa, putzuan, eta gizakiak ahateen erdian (ha ahateen amorrua!). Eta otsoak putzuaren ertzean jesarrita, barrez lehertu beharrean... Ez dakizu zenbat barre egin genduan! Pipita zan barrerik egiten ez eban bakarra.

—Pipitak barrerik ez?

—Ez, behin ere ez dau egiten.



VIII

Halaxe izan zan. Barriketa haren ondoren, Otso Urдинek laguntzat hartu eban Eper. Alaia zan, eta alkarren barriak trukatu ebezan. Urteak igaro ziran. Eta joan dan astean Eper hil egin zan. Halantxe gertatu ziran ba gauzak, eta halantxe gertatu dira gaur arte, zeren orain Otso Urдин kaiola hutsean jesarrita dago, mutikoaren aurrean. Begia begian, alkarri begira dagoz. Isiltasunaren orde, uriaren urruneko hotsa entzuten da. Zenbat denpora ete daroe holan otsoak eta mutikoak? Mutikoak hamaika bider ikusi dau otsoaren begian eguzkia sartzen. Ez zan Alaskako eguzkia (han dauan argi zurbilaz ez dakizu sortu ala sartu egiten dan...); ez, hemengo eguzkia zan, zoologikoko eguzkia, arratsaldea aurrera doala ezkututzen dana, bisitariak erretiratzan diranean. Orduan gaua sartzen da otsoaren begitik. Eta lehenengo koloreak eroaten dauz, eta hurrengo koloreak eza-

batzen. Orduan otsoaren betazala itxi egiten da, itzaltzen doan begi horren gainean. Otsoa han geratzen da, jesarrita, mutikoaren aurrean.

Baina loak hartu dau.

Orduan mutikoak, gela batetik hanka puntetan urtengo baleu lez, zootik urten dau.

Baina goizero, Sugar Baltz, Lehengusu Urдин, ulegorriak, Pipita eta Eper otsoaren begian agertzen diranerako, mutikoa han dago, zutunik kaiolarearen aurrean, geldi, erne.

—Laster jakingo dozu nire bizitza osoa.

Orain otsoak bere gomutarik txikienak batu dauz: ezagutu dauzan zoologiko guztiak, bide batez ezagutu dauzan abere guztiak, abere atxilotuak eta bera beste tristeak, berari begira egon eta berak azaletik ikusi dauzan gizakien aurpegiak —hareek ere ez oso zoriontsu—, urta-roetako hodeiak pasaeran, zuhaitzetik jausten dan azken hostoa, Eperren azkeneko begiradea, okelarik gehiago ez probatzea erabagi eban eguna. Dan-dana kontatzen deutso, Otso Urдинen azken gomutapenera arteko guztia.

Azken gomutapen hau, neguaren hasieran, goiz baten, mutikoa kaiola aurrera heldu zane-koa da.

Eta egia da: mutikoak bere irudia ikusten dau otsoaren begian.

—Bai, halan da, zeu zara nire azken gomutapena.

Eta egia da: mutikoak bere burua ikusten dau otsoaren begian.

—Ezin dozu imajinatu zein desatsegin zindudazan hasieran!

Mutikoak bere burua ikusten dau begi biribil horretan, zutunik, haritz ihar bat lez.

—Neure artean pentsatzen neban: zer gura ete dau? Ez da otsorik ikusi bere bizitzan, ala?

Mutikoaren arnaseak lausotu egiten dau otsoaren begia.

—Pentsatzen neban: ni baino lehen nekatuko da, pazientzia gehiago dot, otsoa naz!

Baina, otsoaren begian, ez zirudian mutikoak joateko asmoa ebanik.

—Hasarre nintzan, badakizu?

Holan, otsoaren begi ninia estutu eta sugar gisa oldartzen jako mutikoari.

—Baina gero begia itxi zenduan. Keinu atsegina egin zenduan...

Orain dana dago nasai. Edurra hasi dau otso eta mutiko honeen gainera. Neguko azkenengo malutak dira.

—Baina, eta zu? Zu nor zara? Zelan dozu izena?



3. Gizakiaren begia



I

Ez da mutikoari izena itauntzen deutsien lehenengo aldia. Umeak ere hasieran...

—Zu barria zara hemen?

—Nondik zatoz?

—Zer egiten dau zure aitak?

—Zenbat urte dozuz?

—Zein mailatan zagoz?

—Badakizu txapel-txapelka jokutzen?

Umeen itaunak besterik ez ziran.

Baina otsoak egin barria eutsana zan sarrien egiten eutsiena:

—Zelan dozu izena?

Eta inoiz ere ez eban inork ulertzen mutikoaren erantzuna:

—Afrika dot izena.

—Afrika? Afrika ez da pertsona izena, lurraldearena baino.

Barre egiten eben.

—Hala ere, Afrika dot izena.

—Ez zara txantxetan ibiliko, ezta?

—Benetan?

—Adarra jo gura deuskuzu?

Mutikoak begirada berezi horregaz begiratu eta nasai itauntzen eutsen:

—Zuei barre egin gurean nabilela uste dozue?

Ez, ez eban txantxa aurpegirik.

—Parkatu, jolasean genbilzan...

—Ez genduan gura...

—Ez geuntsun...

Mutikoak eskua jaso eta irribarre gozoa egiten eban, desenkusak onartuak ebazala adierazteko.

—Ez da ezer gertatzen. Afrika dot izena, eta nire deitura N´Bia. Afrika N´Bia da nire izen osoa.


Baina mutikoak ondotxo daki izen batek ez daukala ezer balio historiarik ez badau. Otso bat zoologiko baten lakoxea da: haren historia eza-gutu ezean, piztien arteko beste bat besterik ez da.

—Ondo da, Otso Urdin, nire historia kontatuko deusut.

Orain mutikoaren begia aldatzen doa: apurka amatatzen doan argia emoten dau, edo lurpean

bidea egiten doan tunela. Horixe, eta Otso Urdin bertan sartzen da azeriaren babeslekua balitz lez. Zenbat eta barrurago sartu, orduan eta gitxiago ikusten da, argi izpirik ere geratzen ez dan arte. Otso Urдинek bere hanka puntak ere ez dauz ikusten. Zenbat denpora emon dau mutikoaren begian sartzen? Gatxa da zehaztea: mendeak irudititu arren, minutuak izan ziran, harik eta iluntasun osoan berba egiten eutsan ahots txiki bat entzun zan arte:

—Heldu gara, Otso Urdin, heldu gara: hori da nire lehenengo gomutapenaren lekua.





II

Gau bildurgarria da. Ilargirik bako gau afrikarra. Eguzkiak sekula lurra argitu ez baleu lakoa. Harrabots itzela entzuten da: izu oihuak, jendea arineketan, alde guztietatik sortzen diran tximistak eta ondoren tiroak, Otso Urdin harrapatu eben gauaren antzera. Gero garren txinparta jarioa entzuten da, distira gorrixkea ikusten da, eta geriza baltzak hormeari josiak lez. Gerrea dirudi, edo antzeko zeozer: suak isiotzen dira alde guztietatik eta etxe asko jausi egiten dira...

—Toa! Toa!

Emakume bat da deiadarka, arineketan. Hormen ondo-ondotik doa eta besoetan zeozer

daroa. Gizon bat ere bada, gamelutzar bati tiraka doana, eta emakumeak dinotso:

—Toa merkataria! Entzun eidazu, mesedez!

—Ez dot uste berbetan hasteko unerik egokiena danik!

—Ez da berba egiteko, Toa, mutikoagaitik baino. Hartuizu mutiko hau eta eroan hemendik urrunera. Ama hil jako...

Emakumeak besoetako fardela luzatu deutso.

—Zer gura dozu egitea hain txikia dan ume bategaz? Enbarazu izango dot bidean eta, gainera, nire ur guztia edango dau.

Bat-batean, sugarrak urten dabe alboko leiho batetik. Toak erreten sentitu dauz biboteko uleak.



—Afrika arraioa! Afrika madarikatua!

—Mesedez, Toa! Salbatu eizu umea! Hazten danean historiak kontatuko deutsuz, ametsak eragiten dabezan historiak.

—Ez dot nik ametsen beharrik: nahikoa dot eguna ametsetan emoten dauan gamelu tentel honegaz!

Gamelua oasi baten ertzetik balebil lez doa infernu hau zeharkatzen. Bat-batean, ostera, gelditu egin da.

—Toa! —egin dau deiadar emakumeak—. Dirua emongo deutsut!

—Ez dot ezer gura. Eta zuk, gamelu ergel horrek, zer dozu orain? Aurrera egingo dozu ala ez?

—Diru asko emongo deutsut, Toa, diru asko!

—Gamelu madarikatua! Tentel deitzen deutsudan bakoitzean gelditu egiten da! Zenbat diru emongo deustazu?

—Daukadan guztia.

—Guztia?


—Guzti-guztia.

III

Eguna argitzean, paisaia oso desbardina azaldu da. Otso Urdinek ez dau sinesten bere begi bakarrak ikusten dauana.

—Edurra da eta!

Ez dago ez zuhaitzik, ez harririk, ez bedar izpirik: edurra bakarrik, zeru urdina eta zeruertzeraino zabaltzen diran mendixka edurtuak besterik ez.



Edur bitxia da, horixkea, baina karraska eta kirrika egiten dauana eta, Alaskako edurraren antzera, irristarazten dauana. Zeruaren erdi-erdian, eguzki zuria, begiak erdi ixtera behar-tzen dauan horreetakoa eta Toa merkataria izerditan blai jarten dauana.

—Basamortu madarikatua! Hondar madarika-tua! Ez da sekula amaituko?

Toa ibilian doa, makurtuta. Gamelua aho-uhaletik daroa eta haginartean marmarka dino:

—Afrika arraioa! Afrika madarikatua!

Gameluak ez dau aditu. Amets eginez doa. Ez da gamelua, dromedarioa baino. Konkorrak baka-rrekoa da, baina zer ez ete dau Toak haren bizkarraldean ezarri!: kazolak, lisibarako on-tziak, kafe-errotak, zapatak, kriseiluak, zumezko aulkiak. Egiatzko kinkila ibiltaria da, eta zabuka doa konkorraren balantzearen arabera. Eta gai-nean, traste mordoaren gainean, artez jesarrita eta beduindarren artulezko tapaki baltz baten batuta, mutikoa doa: urrunera begira.

“Eskerrak, hor zagoz —pentsatzen dau otso-ak—. Bildur nintzan zital horrek edozein zoko-tan itziko ete zinduzan!”

Otso Urlinek hobe dau ez fidatu. Urte mor-doskea igaro dau gau itzel haretatik, eta Toa mer-kataria behin baino gehiagotan ahalegindu da

mutikoa abandonatzen. Beti jokabide bardina: batzuetan, batez ere umore txarrez itzartzen da-nean (negozioak ez jakozalako ondo joan, ur putzua agortua dagoalako, gaua hotzegia izan dalako edo beste edozergaitik), isil-isilik jagiten da, artule ilunezko dendea batu eta erdi lo jarrai-tzen dauan dromedarioari belarrira esaten deutso:

—Goazen, gamelu, jagi, bagoaz eta.

Mutikoak lo dagoanaren plantak egiten dauz. Badaki zelan jarraitzen dauan historiak.

—Zer? Bazatoz ala ez?

Toa merkatariak aho-uhaletik tiratzen deutso dromedarioari eta hau begira gelditzen jako kardu zahar bat mastekatzen dauan bitartean.

—Jagiteko esan deusut!

Baina ez, ez da jagiten. Dromedarioak belau-niko jarraitzen dau eta, Toak, beti, une horretan makilatzarra atera eta mehatxu egiten deutso:

—Egurra gura dozu?

Baina nahikoa da dromedarioak ezpanak jaso eta bere hagin luze, zapal eta horixkak erakustea makilea baztertzeke.

“Mutiko barik ez noa inora.”

Hori dino dromedarioaren isiltasunak, geldi-tasunak eta begirada nasaiak. Orduan, Toa muti-koarengana joan eta belarrondoko batez itzar-tzen dau.

—Jagi zaitetz, gora! Denpora luzea galdu dot zeure erruz. Igon horra gora eta ez zaitetz mutigitu.

Izan ere, dromedarioak ez dau beste inor onartzen bere konkorraren gainean. Beraz, gainean doa mutikoa eta oinez Toa, merkataria, oinutsik hondar beroan.

—Kaixo, Arkakuso! Ondo lo egin dozu?

—Afrikak adina ondo! Eta zeuretzat, Lapiko, zelakoa izan da gaua? (“Lapiko” da mutikoak dromedarioari ezarri deutson ezizen kuttuna.)

—Bai, lo ederra eta amets kilikagarri bat.

—Ederto, joango gara?

—Goazen.

Lapikok hankak luzatu eta zutundu egiten da laranja koloreko zerupean. Eguzkia gora dator. Toa merkataria erneguka dabil, lurrera ttu eginez eta Afrika madarikatzen. Dromedarioak eta mutikoak barre egiten dabe. Aspaldi ikasi eben euren kautan barre egiten. Kanpotik begiraturik, hondar muinoak lez lau eta serio dagoz.



IV

Eta holantxe hasi eban ba bere bizimodua. Afrika osoan, Toa merkatariak ez eban inon topatuko halako mutikorik karga eta deskargak hain bizkor egingo ebazanik; ezta beduindarren kanpadenden aurrean salgaiak aurkezten atsegina-gorik ere; ezta gameluen gogoia ulertzen hoberik ere; eta, batez ere, suen inguruko gau-jai ederretan, Sahara izotzezko basamortua baino hotzago bihurtu eta bakardadea gertuen sentitzen danean, istorio politak kontatzen hoberik ere ez.

—Hauxe kontalari bikaina!

—Kontalari ona, ezta?

—Bai, ondo kontatzen dau.

Mutilaren talentuak erakarri egiten ebazan bezeroak nomaden kanpamenduetan. Toa pozik ebilen.

—Zu, Toa, zer izen dau mutil honek?

—Ez dot izan astirik izen bila jarduteko. Beste zereginik ez baneu lez!

Nomadak ez eben gogoko Toa merkataria.

—Toa, ez dozu merezi mutiko hau.

Leku bat egiten eutsien mutilari sutondoan; han, gaztanbera emon (argalegi ikusten ebelako) eta esaten eutsien:

—Hasi kontatzen!

Orduan mutilak Lapikoren konkor gainean sortutako istorioak kontatzen ebazan; edo dromedarioaren ametsak, gauero egiten ebalako ametsetan eta, batzuetan, baita eguzkipeko ibilian ere. Istorio horreek guztiak Afrika Horiaz ziran, Saharaz, Afrika hondartsuaz, eguzkiaz, bakardadeaz, eskorpioiez eta isiltasunaz. Eta karabanak eguzki galdatan abiatzen ziranean, mutilaren istorioak entzuten egon ziranak beste Afrika bat ikusi uste eben gameluen gainetik. Bat-batean, hondarra leuna iruditzen jaken, eguzkiak iturria gogorazoten eutsen, eta ez ziran bakarrik sentitzen: mutikoaren ahots xamurra eroien lagun basamortuan zehar.



—Afrika!

Gau baten, tuaregen buruzagi zahar batek (baebazan gitxienez ehun eta berrogeita hamar urte) hauxe adierazo eban:

—Toa, mutikoari “Afrika” deituko deutsagu!

Afrikak istorioak kontatzen ebazanean, Toa besteengandik bereizita jesarten zan, bere tunikan batuta. Baina kontakizun bakoitza amaitzean, jagi, latorrizko azpil bat hartu eta brontzezko txanponak edo bilete zaharrak batzen ebazan.

—Mutikoaren istorioak ere kobratu egiten dauz!

—Zeure burua salduko zeunke zuk, Toa, nork erosirik izan ezkeru.

—Merkataria naz —ahopetik Toak—, eta neure lana egiten dot.

Eta egia da Toak edozer saldu eikean. Eta holan, egun baten, dana saldu eban.

Hegoaldeko uri baten gertatu zan, basamortuak hondarrezkoa izateari izten deutsanean. Hor beste Afrika bat hasten da, Afrika Arrea, harri goriz eta sasiz jantzia; eta, hegoalderago, bedar iharrezko lautada handiak dauzana.

—Itxaron eidazu hementxe —agindu eutsan Toak—. Zaindu dendea.

Eta gamelua aho-uhaletik oraturik, urian zehar ezkutatu zan. Afrikak ordurako galdua eutsan bildurra bakarrik egoteari. Baekian Lapiko ez zala joango uritik bera barik.

Eta halan ere Toa bakarrik itzuli zan.

—Saldu egin dot gamelua!

—Zelan? Lapiko saldu dozula? Nori saldu deutsazu?

—Zer ardura deutsu zuri.

Begirada iheskorra eban.

—Eta zeu ere saldu egin zaitut.

Eta gehitu eban:

—Orain abeltzaina zara.

V

Toa joan zanean, Afrikak orduak emon eban Lapikoren bila. Alferrik, ostera.

—Ziur nago ez dauala uritik alde. Ez leuke pausorik emongo ni barik! Berbea emon eustan.

Oinezkoei itaundu eta honeek erantzuten eutsien:

—Mutil, hemen gameluak itzel saltzen dira!

Bere adineko umeei itauntzen eutsen:

—Ez dozue ikusi dromedario ameslari bat?

Umeak barre egiten eutsien:

—Dromedario guztiak dira ameslariak!

Gameluei ere esaten eutsen:

—Duna bat bezain altua da!

Gameluak mesprezu aurpegiagaz begiratzen eutsien:

—Mutil, gure artean ez dago dromedario txikirik: abere handiak bakarrik...

Eta, jakina, gamelu erosleei ere itauntzen eutsen:

—Harearen koloreko dromedario eder bat Toa merkatariak saldua...?

—Zenbatean? —erantzun eben erosleak, salneurriaz beste ezertaz pentsatzen ez ebela.

Harik eta ahuntzen Erregea hasarratu zan arte:

—Zu, Afrika, ez zagoz hemen dromedario bat aurkitzeko, nire abeltaldeak zaintzeko baino!



Toak ahuntzen Erregeari saldu eutsan Afrika. Ez zan gizon txarra, baina bere abeltaldeak eban munduko beste edozer baino maiteago. Bestalde, ulea kizkurra eban arkumeak lez, ez eban ahuntz gaztaia besterik jaten eta ardi esnea besterik edaten, eta ahuntzen marraken antzera

berba egiten eban bitartean, okotzeko bizarrak dardarka mugitzen jakozala. Ez zan etxe baten bizi, karpa baten baino, bera abeltzain zaneke garaiak gogoratuz, eta ez eban inoiz ere izten bere ohe handia, artule baltz kizkurrezko burusiz estaldua.

—Bai, zaharregia naz. Bestela, zera beharko neuke nik abeltzain bat!

Ardi bat gaixotzean, arkume batek hanka bat haustean, ahuntzen bat galtzen zanean, abeltzaina bota egiten eban.

—Entzun dozu, Afrika?

Mutikoak buruaz egindako keinu batez adierazo eutsan baietz, ulertu ebala.

—Beno, ba, orduan, jesarri eta entzun!

Ahuntzen Erregeak gaztai zati on bat eta kairu bete esne epel emon eutsazan mutilari. Orduan hasi jakon azaltzen abeltzain lanbidea.

Afrika urte biz egon zan ahuntzen Erregearen zerbitzari. Afrika Arreko biztanleak ezin eben sinestu.

—Aguarearen artzainak gehienez hamabost egun irauten dabe. Zein da zure sekretua?

Afrikak ez eban sekreturik. Abeltzain ona zan, beste barik. Gauza errez bat ulertu eban:

abeltaldeak ez dabe areriorik. Noizbehinka lehoiak edo gepardoak ahuntzen bat jaten badabe, gose diran seinale. Afrikak argi azaldu eutsan hori ahuntzen Erregeari.

—Errege, lehoiak zure abeltaldeein erasoterik gura ez badozu, zuk zeuk emon behar deutsezu jateko zeozer.

—Zer dinozu? Lehoiei jaten emon behar deutesdala?

Ahuntzen Erregeak atzamarrez ziharduan bizarra kiribiltzen.

—Ados, Afrika, ez da ideia txarra.

Eta Afrikak, ahuntzak bazkatzera eroaten ebazan lekuan, okela zatiak zabaltzen ebazan, beragaz uritik eroanak.

—Hori da zure parte, lehoi, eta itzi bakean nire abereak.


Lehoi zaharrak usain egiten eutsen patxadaz okela zatiei.

—Mutil berezia haz, abeltzain, benetan berezia.

Eta jaten hasten zan.

Gepardoagaz Afrikak alkarrizketa luzeagoa izan eban. Gau baten, piztia isil-isilik eta bedar artean kuzkurturik abeltaldera hurreratzen egoala, Afrikak esan eutsan:

—Gepardo, ez zaitetz sigi-saga ibili bedar artean, entzun zaitut.



Gepardoak, harrituta, burua jaso eban bedar ihar artetik.

—Eta zelan egiten dozu, abeltzain? Sekula ez nau inork entzuten!

—Afrika Horitik nator. Han ez da isiltasuna besterik, eta entzumena zorroztu egiten da. Begiratu, esango neuke bizkarrean arkakuso bi daukazuzala borrokan.

Gepardoak kolpe bakarrez irunsi ebazan arkakuso biak.

—Entzun —jarraitu eban Afrikak—, zugaz berba egin beharra dot.

Gepardoak, harrituta, jesarri eta entzun egin eban.

—Ehiztari ona zara, gepardo. Beste edozein aberek baino abiada handiagoa dozu eta ikusmen zorrotzagoa. Horreek dira abeltzain batek behar dauzan dohainak.

Isilunea. Urruneko elefantearen orroa entzun eben. Ondoren, tiro batzuk izan ziran.

—Ehiztari kanpotarrak... —esan eban Afrikak.

—Bai, barriz etorri dira —gehitu eban gepardoak—; atzo ikusi nebazan.

Biak egozan goibel.

—Gepardo, zergaitik ez zara nigaz abeltzain lanetan jarduten?

—Eta zer irabaziko neuke nik horregaz?

Afrikak goitik behera begiratu eutsan gepardoari. Haren ezpanen ertzetaraino, begietatik botatako malko bien arrastoak ikusi ebazan.

—Adiskide bat behar dozu, gepardo, eta nik ere bai.

Hori izan zan gepardoagaz gertatu zana: Afrika eta biak oso lagun onak egin ziran.



VI

Ahuntzik gazteenak ezin eutsien jarraitu taldeari. Larreak urrunegi egozanean berehala nekatzen ziran, atzera geratzen ziran eta hienak, beti abeltaldetik gertu ibiltzen ziranak, ezpanak miazkatzen ebezan barrez. Gepardoa asperturik egoan hienak uxatzeko betiko joan-etorrian. Ahuntzik ahulenak ziran ederrenak eta bitxienak ere, arraza berezikoak ziran eta, ahuntzen Erregeak “Abisiniako ene Usoak” deituak. Loa ere galdu egiten eban ahuntz hareei zeozer gertatu eikiela pentsatzean.

—Errege, zure usoak zaintzeko modu bat bururatu jat.

Afrikak bere asmoa azaldu eutsan.

—Atzera itzi behar dira ahuntzik gazteenak.



Atsekabez hiru ule atera ebazan bizarretik.

—Bakarrik eta atzera? Burua galdu dozu? Eta zer gertatuko da hienakaz?

—Hauxe da plana: sasi arantzadunetan batuko dodaz ahuntzik gazteenak eta hienak, holan, ezingo dabez harrapatu.

Ahuntzen Erregeak begiak itxi eta pentsatu eban:

—Hara: ahuntzak sasi arantzatsuak jaten dabez, euren matrailak untzak txikitzeko ere gauza dira! Arantzak ez dabe euren narruazala zeharkatzen eta, hienak zeozer gorrota badabe, hori arantzea da. Ideia bikaina, zalantza barik.

Eskuz bizarra txukundu, Afrikari begiratu eta itaundu eutsan:

—Esaidazu, Afrika, zergaitik ez jat bururatu ideia hori zuri baino lehen?

Afrikak agurearen begiei so egin eutsen: nekatu eta kolorebakotuak emoten eben eta leun erantzun eutsan:

—Orain abeltzaina neu nazalako. Zu Erregea zara.

Ikustekoa zan hienen aurpegia sastraka arantzatsua ikustean.

—Halakorik ez, Afrika: antxume hau nire muturretan, Abisiniako uso bat! Hau tentazioa! Oso krudela zara nigaz.

Adurra zeriola egoan piztia. Hanken artean lorak ernetzeko adinako adurra zerion. Afrikak buruan leunki ikutu eta esan eutsan:

—Itzuleran, lehoi zaharrak itzitako hondakinak ekarriko deutsudaz. Lehoiak aberatsak lakoak dira, beti izten dabe zeozer.

Hienen hatsa higuigarri egiten jakon gepardoari, eta bekoskoa jartzen eban.

—Abeltzain, hobe zeunke “zera” horregaz berbarik ez egitea.

—Nik mundu osoari egiten deutsat berba.

—Ba, ez zeunke egin behar. Ni ez naz fidatzen “zera” horretaz.

Abeltaldea aurrera abiatu zan. Gepardoak hieneari mesprezuzko azken begiradea bota eta esan eutsan:

—Dana dala, ez dau ezelako garrantzirik. Ni bizi nazan bitartean inortxok ere ez deust antxume bakar bat ere jango.

Holan izan zan. Denporea aurrera joian, eta abeltaldeak gora egin eban. Ahuntzen Erregeak nasai egiten eban lo. Danak egozan pozik, baita hienea ere, benetako oturantzak egiten ebazalako lehoiaren hondakinez. Sasien ondoan Abisiniako Usoak zaintzearren gelditzen zala esateraino heldu zan. Gepardoak buruari eragin eta sinesgaitz aurpegia jarten eban.

—Holantxe da! —protestatzen eban hieneak—. Eta “Usoei” zeozer gertatuko balitzake, neu joango nintzakizu abisatzera, abeltzain.

Danak ezagutzen eben abeltzain gaztea Afrika Arrean. Oso entzutetsua zan. Iluntzean, Afrikak sua isiotzean, ez zan luzaro itxaron behar berarengana etozan gerizak ikusteko. Ez ziran lapurrak. Ez ziran abere gosetiak. Gizakiak eta abereak nahastean osotzen eben taldea zan, eta Ahuntzen Erregearen abeltzain gaztearen Afrikako istorioak entzutera etozan. Beste Afrikaz, Afrika Horiaz, jarduten eutsen. Lapiko dromedarioaren ametsak eta desagerketa misteriosua kontatzen eutsezan. Baina Afrika Arreko istorioak ere kontatzen ebazan, eurak baino hobeto ezagutzen ebalako, nahiz eta han jaioa ez izan.


—Zein ederto kontatzen dauan, ezta?

—Benetan, bikain kontatzen dau!

Eta, egunsentian, aldentzen ziranean, Afrikagaz jarraitzen ebela emoten eban.

Behin baten, Sabanako Gorila Arreak kontaketea eten eutsan:

—Zu, abeltzain, badakizu beste Afrika bat ere badagoala? Afrika Berdea, zuhaitz altu eta ugariez betea! Han lehengusu bat dot, handia, sendoa eta buruhezur zorrotza daukana.



Afrika Berdea? Inork ere ez eban sinesten, baina nork ukatu ezer Sabanako Gorila Arreari?

Bitxia da bizitzea, benetan! Batzuetan, existitzen dala ere ez dakizun zeozertaz berba egiten deitsu baten batek, ia sinestezina dan zeozertaz, eta, handik gitxira, aurkitu egiten dozu. Afrika Berdea... Eta mutikoak, ustekabeen, handik gitxira ezagutu ahal izan eban Afrika Berdea!

VII

Gau baten Afrikak istorioak kontatzen ziharduan eta, abereak entzuten ebazala, gepardoak eten egin eban:

—Isilik!

Urrunean hienearen barrea entzun zan, baina barre berezia, barre amorratua...

—Zeozer gertatu jake “Abisiniako Usoei”!

Gepardoa zutundu egin zan.

—Banoa! Abeltzain, han batuko gara artalde-agaz batera.

Desagertu aurretik gehitu eban:

—Esan neutsun “zera” horretaz ez fidatzeko!

Eguna argitzean, Afrika sasien hesira heldu zanean, lur jota geratu zan. Saroia hutsik egoan! Hienea ez egoan, eta ezta gepardoa ere. Borroka arrastoak ikusi eitekezan inguruan... Inork ez ekian ezer. Ahuntzen Erregea ia hil egin zan atsekabearen atsekabez.

—“Abisiniako ene Usoak”! Ederrenak ziran, finenak, nire begikoenak, danetan berezienak. Horixe gertatzen da jendea gepardoakaz alkartzen danean! Ziur berak jan dauzala! Madarikatua, abeltzain! Alde hemendik eta eroan zeugaz sasi itxiturok! Ospa! Desagertu begien bistatik neure eskuz ito aurretik!



Zer egin behar eban mutilak? Afrika Arrean geratu? Ez, tristeegia zan. Afrika Horira itzuli? Lapiko barik? Hori ere ez. Mutilak Sabanako Gorila Arreak Afrika Berdez esana gogoratu eban: “Badot han lehengusu bat...”.

—Zelan ordainduko dozu bidaia? —itaundu eutsan gidari batek.

—Kamioia garbituko deusut —erantzun eutsan Afrikak.

—Kamioia ez da garbitzen, motorra da balio dauana.

—Otorduak prestatuko deusudaz.

—Prest dot jana (kamioilariak gaileta piloak erakutsi eutsan, baltzak eta gaztanberazkoak).

—Istorioak kontatuko deusudaz.

—Ondo. Atsegin dodaz istorioak eta, holan, ez naz lokartuko. Igon, baina zure istorioak aspertzen banabe, leihotik botako zaitut.

Eta holan itzi eban mutilak Afrika Arrea. Kamioilaria gidatzen egoan bitartean (bizkorregi), Afrikak istorioak kontatzen ebazan. Baina kontatzen ziharduala beste gauza bat pentsatzen eban. Zer gertatu ete jaken “Abisiniako Usoei”, gepardoari, hieneari? “Nire adiskide guztiak galdu behar ete dodaz, bata bestearen ondoren? Adur

txarrekoa ete naz?”, itauntzen eutsan bere buruari.

Eguzkia, urten eta sartu egiten zan. Bidaia goibela zan, luzea, oso luzea, beroa eta aspergarria.

Kamioia une batetik bestera zatika jausiko zala zirudian. Bidaiari gehiagok igon eben. Kamioilariak garraioa kobratu egiten eutsen, eta garesti gainera (“Istorioak kontatzen dauzan mutil bat daroat”, esaten eban). Asko sartu ziran, gehiegi ere bai. Afrikak holan esan eutsan gidariari:

—Zama gehiegi daroazu, kamioilari, eta bizkorregi gidatzen dozu...

—Zagoz isilik eta segi istorioakaz!

Afrikak gau eta egun ziharduan istorioak kontatzen eta, iluntasunean, entzuten eutsienean begiak ikusten ebazan.

Azkenean, goiz baten, eztarri guztietatik oihu batek urten eban. Han, lur lehor eta zartatuzko itsaso baten amaieran, oihan tropikaleko mendixka berdeak ikusi eitekezan.

Afrika Berdea! Sabanako Gorila Arreak ez eban guzurrik esan.

Mundu guztia egoan pozez oihuka leihoetara hurreraturik. Gidariak abiada handiagoa hartu eban. Zitzu baten sartu ziran oihanean eta gertatu beharrekoa gertatu zan: ira itzel handiz inguratutako bihurgune baten, autobus txikia bidetik

urten eta irauli egin zan, txatarrearen eta motore zoratuaren zalapartearen erdian.

Kamioia izan zan Afrikak zorabiatu aurretik ikusi eban azkena. Haren lau gurgil okertuak biraka jarraitzen eben; kakarraldo zahar bat zirudian hankaz gora.





VIII

—**A**ma Bia, Ama Bia, bizkor, itzartzen doa eta!

—Zelan ez da, ba, itzartuko neuk osatu dot eta.

—Halan ere, ez neban uste horren bizkor itzartuko zanik...


—Aita Bia, xahar hori, zenbat denpora daroat jendea osatzen?

—Neskato bat zinanetik, berrogeita hamar urte baino gehiago!

—Eta zenbat itzi dodaz osatu barik? Esan daikedazu?

—Inor ere ez. Danak osatu ziran. Miraria emoten dau bakoitzean.

—Zera izango da miraria! Ama Biaren esku ona da!



—Halan ere, honako hau hil egingo zala pentsatzen neban.

—Xahar errukarria, honako hau besteak baino askoz gogorragoa da: ehun urtez biziko da!

Afrikak baerorian denporatxoa barretxoakaz nahastutako txutxu-mutxu horreek entzuten. Begiak zabaldu ebazan.

—Ama Bia, begiak zabaltzen dihardu!

—Ikusten dot. Emoidazu koko-esnea.

Afrikak esnea edan eban; edari freskoa zan, koipetsua, gozatua eta nahiko garratza. Gogoko izan eban.

—Gogoko dauala esango neuke!

—Aita Bia, jakina gogoko dauala. Ez dau ezer itzi oskolean!

Afrikak barriz lo hartu eban.

Bigarrenez itzartu zanean, etxean ez egoan inor. Baina ahots batek esan eutsan:

—Kaixo, mutill!

Ahots metalikoa eta sudurretikoa zan; intxaurrak txikitzeko moduko moko bat eban txori urdin buztan gorri batek esana. Lurreko pitxar baten gainera igoa egoan txoria.

—Kaixo! —erantzun eutsan Afrikak—. Nor zara?

—Papagai bat naz. Eta zeu?

—Abeltzaina. Merkataria ere izan nintzan, beno, ia...

—A bai? —esan eban papagaiak—. Aita Bia lez! Eta ziurrena, harek lez, nekazari amaituko dozu!

—Jagi naiteke? —itaundu eban Afrikak.

—Hanketan indar nahikoa badozu, nork galazoten deutsu?

Afrika astiro zutundu zan badaezpada, baina ez zan beharrezkoa: osatuta egoan. Lo egin bitartean, istripuan galdutako indar guztiak berreskuratu baleuz lez. Orduan, oihi alai bat egin eta lasterka urten eban etxetik. Baina bere oihua izu-garrasi bihurtu zan: etxea egurrezko zutabeen gainean eregia egoanez, amildegira jausi zan. Afrikak begiak itxi ebazan, kolpearen zain. Baina beste zeozer jazo zan: indar ikaragarria eben beso itzel bik aidean harrapatu eben eta papar zabal, bizartsu eta eroso baten kontra estutzen ebela sentitu eban; ahuntzen Erregearen ohea bezain eroso zan paparra. Eta jarraian barre algara zaratatsu bat entzun eban, txori guztiak ikaratuko ebazana.

—Aita Bia, barre moteltxoagoa egiterik ez, ala?

—Kuluxka garaian ez neban holakorik espero.

Oihan guztia kexuka ebilen.

—Ama Bia, lortu duzu! Begira, guztiz sendatuta dago!

Aita Biak, Afrika bere buruaren gainetik jasoz, une horretan zuhaitz artetik azaldu zen amamamtxo txiki bati erakutsi eutsan.

—Hainbeste zalaparta ere ez da behar, aita Bia; ikusten dut osatuta dagoala.

Afrika aho zabalik gelditu zen: amamatxoaren ondoren buru zorrotza eban gorila baltz handi bat agertu zan. Papaia gorrixka piloa eroan, frutarik eta osagairik onena.

—Bitxia, benetan! —esan eban gorileak—. Aita Bia beti harritzen da zuk danak osatzeaz.

—Zagoz isilik, tentela! —erantzun eutsan ama Biak—. Harrituarena egiten dau niri poza emoteko.

—Ah, bai? —harritu zan gorilea.





IX

Aita eta ama Biaren etxea lau zutoinen gainean dago eregia, berdea baino berdeagoa dan soilune baten.

—Zer arako dira zutabeak? —itaundu eban Afrikak.

—Sugeak etxean sartu ez daitezkan, seme.

Etxeak oihana eban inguruan, landarez oso turiko hesi garaia; hain garaia zanez, etxea putzu berde baten barrenean egoala emoten eban. Aita eta ama Bia Afrikaz arduratu ziran eta jaten emon eutsien. Ez eutsien ezelako itaunik egin. Ez eben lan egitera ere behartu.

Egunez oihaneko soiluneaz eta zuhaitzez arduratzen ziran. Gauetz, berbetan jarduten eben.

Asko bizi izandakoak ziran biak: Afrika Berdeko pertsona eta animalia guztiak ezagutzen ebezan. Alde guztietan ebezan lehengusu eta seme-alabak, hiru Afriketan eta Beste Munduan.


—Zer da Beste Mundua?

Aita Bia, Afrikak egindako itaunari erantzuteko ahoa edegitera joiala, abar apurtuen eta zapaldutako hostoen zarata ozena entzun zan. Zaratea ez etorren hurretik, baina jausi zan zuhaitza oso handia zanez, oihan osoak entzun eban haren blaustadea. Ondoren isilune luzea egin zan eta aita Biak esan eban:

—Beste Mundua? Beharbada gertu gagoz Beste Mundutik...

—Zagoz isilik —moztu eban ama Biak—, ez eiozu umeari halako ideiarik sartu buruan.

Eurak eskatu barik hasi zan Afrika aita eta ama Biari lanean laguntzen. Eureka sartzen zan oihanean fruitu bila eta, zapatuero, hirurak joaten ziran auzoko herriko azokara. Aita Biak, saltzaile ona zalako, goraki berba eginez saltzen ebazan salgaiak. Ama Biarengana ere jende asko joaten zan ia hutsaren truke osatzera. Baina laster, Afrika izan zan hiruetan entzutetsuena.



Jendea, erosketak amaitzean,
mutila ikustera joaten zan.

—Zein kontalari bikaina dan,
ezta?

—Bai, bikain asko kontatzen
dau!

—Jakina, ba, ondo kontatzen
dauana!

“Eta zeure historia, zure bizitzakoa kontatuko bazeunsku?” Aita Biak hau eskatu eutsan egunean euria zan. Eta zelako zaparradea gero! Norbere bizia kontatzen hasteko moduko giroa egoan.

Aita eta ama Bia begira ebazan serioski buruari eraginez.

—Beraz, ez dozu aitarik? —itaundu eban aita Biak Afrikak amaitu ebanean.

—Ez, ez dot aitarik.

—Eta amarik ere ez? —ama Biak.

—Ez, ezta amarik ere.

Isilaldi esanguratsua etorri zan, hirurak batera ideia bera izan ebelako.

Afrika holan heldu zan Afrika N´Bia izatera, aita eta ama Biaren azken semea; lehen hamalau izan ebezan, eta Afrika guztian eta Beste Munduko lurretan zehar ebezan sakabanatuak.



X


Baina, urteak joan ahala, gero eta zuhaitz gehiago joiazan jausten. Oihana soiltzen joian. Aita Biaren bekokia gero eta zimurtsuago egoan.

“Ez zaitetz arduratu, geldituko dira noizbait.”

Ama Biak baekian, ostera, ez zirala geldituko.

Eurite aldia heltzean, ebagitako zuhaitzak ibaietara botaten ebezan, itsasorantz joan eitezan. Behin baten, Afrika eta Gorilea ibai ondoan jesarrita egozala, zuhaitz zurituak zelan igarotzen ziran ikusi eben. Gorileak hasperen sakona egin eban:

—Luzaroan ez da gehiago egongo...



Pentsamendu horreetatik aterateko, Afrikak itaundu eutsan:

—Badakizu zure lehengusu bat Afrika Arrean bizi dala?

—Sabanen bizi dan buru zapal lodikote bat? Bai, banekian —erantzun eban gorileak ardura barik.

Barriz ere isiltasuna. Eta isiltasunean aizkora-kada neurtuen hotsak.

—Baina, nora joango ete dira zuhaitz horreek? —itaundu eban Afrikak.

Begirik kendu barik ibaira begira egoan gorileak holan erantzun eutsan:

—Nora joango dira, ba? Beste Mundura, jakina! Eta bere buruari, xuxurka lez:

—Arraioa! Honek ez dau erremediorik, ezin bestekoa da! Erabagia hartu beharko dot!

—Neuk ere bai —bota eban aldamenean ahots berezi batek.

Hasperen ahul eta sakona zan, ahots ia iluna.

—Zuri zer ardura deutsu? —itaundu eban gorileak—. Zu ez zara zuhaitzetan bizi!

—Horrexegaitik hain zuzen ere —azaldu eban krokodiloak—. Uretan bizi naz, baina ibai hau zuhaitzez beteta dago orain...

Aita Biak ere erabagia hartu eban:

—Zatoz —esan eban—. Goazen.

—Zergaitik? —itaundu eutsan Afrikak.

Aita Biak mutikoa oihanaren amaieraraino eroan eta lur idor eta zartatua erakutsi eutsan (Afrikak egun eta gau luzeetan kamioian zeharkatua ebana...)

—Begira —esan eban aita Biak—, ez oso aspaldi zeruertzeraino heltzen zan oihana. Orain zuhaitz guztiak bota dabez. Eta zuhaitzik ez badago, ez du euririk egiten. Ikusten? Ez da ezer hazten. Lurra erabat gogortu da; txakurrak ere ezin dau bere hazurra ezkutatu.

Bat-batean, aita Biak hatz erakuslea luzatu eban.

—Begira!

Atzamarraren norabidea jarraitu eban begira-deagaz Afrikak. Gauzatxo baltz, distiratsu bat ikusi eban; oihanerantz joian hasarre, buruaren gainean ezten gakotua jasota eroiala.

—Eskorpioi baltzak ere ezin dau eroan lehorte hau!

Aita Bia isildu egin zan. Haize errearen bolada batek hauts zirimola bat jaso eban.

—Horra gure soilunea laster zer izango dan... Lehor eukazan ezpanak.

—Zatoz —gehitu eban aita Biak—. Goazen.

4. Beste Mundua





I

Holan heldu ziran hona aita Bia, ama Bia eta Afrika semea, gu gagozan lekura, Beste Mundura. Lehengusu bat eben uri honetan. Harek egunkaria zabaldu eta lanpostu bat aurkitzen lagundu eutsan aita Biari. Aita Bia prest egoan edozein lan egiteko, baina egunkariak inoanez, lan gitxi egoan.

—Ez zaitez arduratu —adoretzen eban ama Biak—, bilatuko dogu zeozer.

Esan eta izan. Egun baten lehengusuak zeozer aurkitu eban.

—Begiratu —esan eban boligrafo batez iragarki bat markatuz—. Hauxe da behar dozuna!

Hiriko zoologikoak emon eutsan lana aita Biari. Berotegi tropikalaren zainketea itzi eben haren esku.

—Zer da berotegi tropikala? —itaundu eban.

—Kristalezko kaiola baten antzekoa da; bertan, gure lurraldeko zuhaitzak sartzen dabez —erantzun eutsan lehengusuak.

Zuhaitzak erdi ihartuak egozan. Aita Biak berpiztu egin ebazan.

Afrikak beti gogoratuko dau zoologikoan sartu zan lehen eguna. Ez ekian zer izan eitekean.

—Abereen lorategia da —azaldu eutsan ama Biak.

Afrikak ezin eban asmatu zelan landatu eitekezan abereak lorategian. Gainera, goibel sentitzen zan; oihaneko argiunearen eta Afrika Berdearen faltea sumatzen eban. Gure uriko hornez inguratua, gartzelan lez sentitzen zan; hain egoan bakarrik, hain bakarrik...


Baina zoologikoko atea igaro orduko, ahots ezagun batek geldiazo eban:

—Kaixo, Arkakuso! Azkenean aurkitu nozu, ezta? Banengoan ba ni!

Unetxo batez Afrika zurtuta geratu zan: ezin eitekean egia izan, ezin eban sinestu begiak eta belarriak esaten eutsiena.

—Lapiko!

Bai. Hantxe egoan dromedariora, bere aurrean, zutunik bere lau hanken gainean, burdinesi batez inguratuta.



—Lapiko! Zer egiten dozu hemen?

—Argi dago, zure zain nengoan. Ez dot pausorik ere emon Toak saldu ninduanetik.

—Ez dozula pausorik emon?

—Berbea emon neutsun lez. Danak ahalegindu ziran ibili neitean, baina alferrik: alkarrengandik aldendu ginanetik ez dot jarri oinik bestearen aurretik.

Afrikak harrituta jarraitzen eban, ezin eban sinestu.

—Baina, zelan konpondu zara hona heltzeko?

Lapikok barre egin eban, hain berea zan barre haregaz.

—Zer egin daike, ba, merkatari batek gamelu elbarri bategaz?

Afrika'ikaratu egin zan:

—Hil egin zeinkiezan!

—Bai zera! Erosleari hobeto etorkon beste norbaiti saltzea!

—Nori?

—Zer deutso ardura! Erosi ninduan beste bati... eta harek ere barriz saldu!

—Eta, zer gertatu zan gero?

—Ba, eskutik eskura ibili ondoren, zoologikorako abereak erosten dauzan gizon baten eskuetara heldu nintzan. Gamelu geldia behar

eban..., horrexen bila ebilen. Oso garesti erosi ninduan.

Beste barretxo bat bere kolkorako.

—Bidaia luzea egin dot hona heldu arte: itsasontziz, trenez, kamioiz, baita garabi batez ere! (Garabia erabili eben ni kaiolaren erdian izteko.) Pausorik ere ez zu barik, Arkakuso, pausorik ere ez neban emon!

—Negar egin behar dot! —pentsatu eban Afrikak—. Baietz negarrez hasi!

—Baina dagoaneko askatu daikedaz haneketako muskuluak! —esan eban Lapikok. Eta abiada betean hasi zan arineketan burdinsarearen inguruan. Gero lurrean iraulkatu eta, bere konkorraren gainean oreka mantenduz, zibearen antzera hasi zan, txiribueltaka eta barreka.

Haren barreka kaioletako abere guztiak kutsatu ebazan, eta barrez hasi ziran bata bestearen ondoren. Afrika ere barrez hasi zan. Barre zantzu handienak egin ebazanak, oihuka esan eban:

—Eh, dromedariora! "Abisiniako Uso" bihurtu zara, ala?

—Barre egiteko era hori... —pentsatu eban Afrikak—. Barre egiteko era hori ezaguna dot!

Hamarren bat metrora, burdinesi sendoaren barruan egoan Afrika Arreko hienea. Bera zan



indartsuen barre egiten eban aberea. Segidan, ondoko kaio-lako aberearengana joan eta esan eutsan:

—Zer dozu, Malko? Ez deutsu barre eginazoten? Begira dromedarioari!

—Ez dot astirik horretarako —erantzun eban Afrikak berehala ezagutu eban ahots batek—.

Ni abeltzaina naz, eta ahuntza zaindu behar dot.

Eta ahots oso goibel batek esan eban:

—Gainera, hobeto zaindu bazendu, ez ginatekean hemen egongo!

—Ahal nebana egin neban! —protestatu eban hieneak—. Hori zeuk esatea ere...!

Afrikak, eztabaidearen lekura hurreraturik, kaiola aurrean gelditu, arnasea sakon hartu eta esan eban:

—Kaixo, gepardo! Nori esaten deutsie Malko? Zuri? Ez zaitetz goibel egon, hemen nago...

—Kaixo, abeltzain! Ez nago goibel, apur bat nekatuta baino: gau eta egun egon naz “Usoa” zaintzen abereen ehiztariak bera eta beste “zera” hori ehizatu ebezanetik...

Afrikak irribarre bat eskaini eutsan hieneari; eta honek:

—Ahal nebana egin neban, Afrika, benetan, baina okela zati bat bota eustien eta ezagutzen nozu: ezin izan neban...

—Nik ere, “Usoa” bakarrik ez izteagaitik, harapatu nengien itzi neutsen. Begiratu eizu: zein ederra dan, ezta?

Eta gepardoak hamarren bat metro harantzago egoan saroi bat seinalatu eban buruaz; han ebilen “Abisiniako Usoa” itzulinguruka, Afrikaren etorrerea ospatzen.

—Ez deusat begirik gainetik kendu —errepikatu eban gepardoak—. Gau eta egun egon naz zaintzen! Orain, etorri zaran ezkerro, atsedean hartu daiket.


Eta berehala loak hartu eban.

Danak egozan han. Afrikak Beste Munduko zoologikoan aurkitu ebazan danak. Sabanako

Gorila Arrea (“Zer gura dozu, ba? Nire zuhaitzak eroaten ziharduenez, neu ere eroan nengiola erabagi neban! Baina begira zelakoak diran! Nire zuhaitzak kaiola baten jarri dabez eta ni beste baten!”), Afrika Arreko lehoi zaharra, zingiretako krokodiloa, buztan gorridun papagai urdina eta, mintegiko kristal gardenaren atzean, bere ezten kezkarriagaz, lehortetik ihesi joandako eskorpioi baltza. Han egoan Toa merkataria ere! Izoziakiak saltzen ziharduan orain. Lehengo bera zan: atzamarrak kotoi gozoz beteta, egun osoa marmarka emoten eban:

—Ah! Beste Mundua! Eta mundiala dala dinozu?

Bai, Afrikak zoologikoko biztanle guztiak ezagutu ebazan. Guztiak, bat izan ezik.



II

—Guztiak ni izan ezik, ezta?

Orain udabarria da. Otsoak eta mutilak aurrez aurre jarraitzen dabe.

—Bai, Otso Urdin. Eta hain bakarrik eta hain goibel ikusten zindudazan...

“Benetan mutil berezia da! —pentsatu eban otsoak—. Gizaki benetan bitxia da! Sugar Baltzek zer pentsatuko ete eukean honetaz?”

Baina otsoa gehiago harritu da mutilaren begian beste zeozer ikustean...

Gaua da. Aita eta ama Bia zutunik dagoz sukaldean. Euren aurrean dago Afrika, aulkitxo baten jesarrita. Bonbila horixka bat sabaitik

dindilizka. Ama Biak bere esku artean dauka mutilaren aurpegia eta hurreratu egin jako. Mutilak begi bakarra dau: hilabetea da bestea itxi ebala. Goizean itzartzean ere, Afrikak begi bakarra zabaltzen dau.

Ama Biak buru keinu tristea egin dau.

—Ez —dino ahots apalez—. Oraingoan ezin-go dot osatu...

Aita Biak hots berezia egiten dau sudurragaz, ebagi bako bizarra igurtzi eta proposatzen dau:

—Osagileren batengana eroan daikegu.


Halan egin eben. Osagileak tanta batzuk agindu eutsazan. Afrikaren betulak itsaskor geratu ziran; egun osoan negarrez egona zala emoten eban. Baina begia ez zan zabaltzen. Osagilearengana joan ziran eta, osagile prestua zanez, hauxe aitortu eutsen:


—Ez dot ezer ulertzen.

—Neuk ere ez —erantzun eutsan ama Biak.

—Nik bai, ulertzen dot —pentsatu eban Otso Urdinek.

Otso Urdin saminez dago ama Bia holan ikusita, sukaldean, mutilarengana makurtuta, eta aita Bia, barriz, gauez lo egin ezinik.





—Eta hau gitxi balitz, Afrikak hor jarraitzen dau begi bakarrez berari begira.

Otso Urdirnek, buruari eragin ondoren, holan itauntzen dau azkenean:

—Zelan asmatu zenduan?

Isiltasuna sortu zan. Mutilaren ezpanetan irribarre arina loratu zan.

—Eta begi hau betiko ixtea erabakia neban ba...

Egia esan, betazal itxiaren atzean, aspalditik dago osatuta otsoaren begia; baina zoologikoa bakarrik ikusteko, abereak hain goibel, bisitariak... “Bah —pentsatu eban otsoak—. Hemengoak ikusteko nahikoa eta gehiegi dot begi bakarra!”

—Oso ondo, Otso Urdin. Baina orain neu ere hemen nago.

Egia. Orain mutiko hori dago. Afrikako abereei Ipar Handiaren barri emon deutse. Otso

Urdini hiru Afriken barri, eta danak amets egiten dabe, baita itzarrik dagozala ere!

Lehenengo aldia da Otso Urdirnek mutilaren sorbalda gainetik begiratzen dauala, eta argi ikusi dauz Pipita eta gepardoa zoroarena egiten zoologikoen erdian, Saharako hauts horixkan.

Eper alkartu jake, ulegorriak ondoren dauzala, eta dantzan hasi dira dromedario zibaren inguruan. Aita Biak berotegiko atea zabaltzen dauz eta Afrika Berdeko zuhaitzak bideak hartu dabez. Abarrik garaienean, zelatari bi lez, alkarren ondoan jesarri dira Lehengusu Gris eta Sabanako Gorila Arrea.

Bisitariak ez dira ezertaz jabetu...

Zoologikoko zuzendariak bere errondeagaz jarraitu dau...

Toa merkatariak arineketan urten dau, eskorpioi hasarratua atzetik dauala...

Umeak itauntzen dabe ea zergaitik diharduan hieneak barre algaraka...

Sugar Baltz mutilaren ondoan jesarri da, Otso Urdinen aurrean...

Edurra hasi dau (udabarri-udabarrian!), eta Alaskako edur eder eta isila danean pausatu da, eta sekretuak estaldu dauz...

“Benetan... —pentsatu dau Otso Urdinek—. Hau guztia benetan ikusgarria da eta hobe da begi biez ikustea...”

“Klik!” egin dau otsoaren betazalak, zabal-tzean.

“Klik!” egin dau mutilaren betazalak.

—Ez dot ezer ulertzen —esango dau albai-tariak.

—Ezta neuk ere —esango dau osagileak.



Aurkibidea

1. Topo egitea	7
I	9
II	12
III	15
2. Otsoaren begia	21
I	23
II	27
III	31
IV	37
V	41
VI	45
VII	50
VIII	56
3. Gizakiaren begia	61
I	63
II	66
III	69

IV	73
V	78
VI	85
VII	91
VIII	97
IX	102
X	106
4. Beste Mundua	111
I	113
II	121

GAZTARO BILDUMA

1. Drogarik EZI
2. Renatak pianoa joten dau,
ingelesa ikasten dau eta
etabar, etabar, etabar
3. Hiltzen bazara,
ikusiko dozu...
4. Karibeko ipuinak
5. Gorbeiatarrak
6. Astoa eta laurok
Euskal Herrian zehar
7. Deriko Kirikoren
bidaia liluragarria
8. Sutondoko
Solasaldia
9. Izaroko altxorra
10. Askatu eizuez pottokak!
11. Otsoren begia
12. Eguberri eta Gabon ipuinak



Urte mordoia lehenago, Otso Urdiriek erabagi sendoa hartu eban bere bizitzarako: sekula gehiago ez eutsan begiratuko gizaki bati. Baina azken egunotan mutiko bat dauka aurrean, zutunik, zirkinik egin barik begira. Afrika da. Afrika merkatari-mutil eta abeltzain ere ibili zan. Zooan ikusi dabe alkar Otso Urdiriek eta Afrikak. Hortxe jakin dabe zooraino heldu bitartean bakoitzak bizi izan dauan historia miresgarria.

